



**AIETEKO PARKEA ETA JAUREGIA  
A MAILA****AIETE PASEALEKUA 65**

Egilea eta datak: Adolfo Ombrecht, 1878; F. Gurruchaga, 1913

**Deskribapena**

Aieteko jauregia Bailengo dukesaren eta haren oinordekoen udako egoitza izan zen 1878 ezkeror; eta, 1940an, Udalak finka eskuratu zuen. Eraikina Madrilen ezarritako Adolfo Ombrecht arkitekto frantsesak egin zuela uste da. Hark egun desagertutako Portugaletoko jauregia eraiki zuen, Bailengo dukeentzat ere. Jatorrizko eraikina 1913an zabaldu zuten, Gurruchagaren proiektuaren arabera (harena da gaineratutako planoak). Eraikinaren estiloak XIX. mendearen erdialdeko arkitektura frantsesaren eragina du. Klasizismo frantsesaren gai ezaugarrietako batzuk biltzen ditu; hala nola, bolumenen konposizio klasizista (erdialdea eta muturrak irtenak dira), bi oinekoko sekzioa eta estalkiaren mantsarda forma, dekoratutako txapitulez. Era berean, beste ezaugarri batzuk dira erlaitzeko modiloak, kateatuak eta baoen azpadurak. Barruan, frisoen, arotzeriaren eta eskaiolen jatorrizko dekorazioei eusten zaie. Horiek behe eta lehen oinetan, eta eskailera nagusian eta horren espazioan ere nabarmentzen dira. Gainera, multzoan nabariak dira lorategiak, zuhaiztia eta ur jauziak, ildo pintoreskoari jarraituz Pierre Ducasse-k diseinatutakoak. Era berean, beste eraikuntza berezi eta pabilioi batzuk biltzen ditu; hala nola, kapera, sarrera, berotegia, garajeak eta usategia.

**Babes erregimena**

- \* Erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen A babes mailan sartzarekin loturikoa.
- \* Berariazko erregimena:  
Kultura ondasun gisa, multzo monumentalaren kategoriaz, kalifikatu izanaren ondoriozkoa, urriaren 24ko 211/2006 Dekretuaren bidez (216. EHAA, 2006-11-13koa).
- \* Eragindako ingurunea: adierazitako dekretuan ezarritakoa (erantsitako grafikoan jasotzen da).